


# ETXEAN EGITEKO JARDUERA



## Paperezko istorioak

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak

## 1. "PAPERAREN HISTORIA" ENTZUNEZKO IPUINA

ENTZUN, DISFRUTATU ETA IKASI PAPERAREN HISTORIA. IPUINA ENTZUTEKO KLIKATU WEB ORRIAN DAGOEN MIXCLOUD LINK-EAN.

## 2. HAGINAK ETA KURRILOAK

### ➤ HAGIN BAT IKUSI AL DUZU INOIZ?

IRUÑEAN BADIRA ZENBAIT: TACONERAN, INGURUMEN HEZKUNTZAKO MUSEOKO PATIOAN (ARROTXAPEA), ... ATERATZEN ZAREN HURRENGOAN, EA AURKITZEN DITUZUN!

HAGINAK HOSTO IRAUNKORREKO ZUHAITZAK DIRA. HORREK ESAN NAHI DU NEGUAN EZ DIRELA HISTORIK GABE BILUZIK GERATZEN, ETA HAIEN HOSTOAK PIXKANAKA-PIXKANAKA BERRITZEN DOAZELA. HORREK ZUHAITZAREKIKO INTERESA PIZTEN DIE ANIMALIA ASKORI HAIEN ADAR ETA HOSTOEN ARTEAN BABESLEKUA TOPATZEN BAITUTE.



- EZAGUTZEN AL DUZU HOSTO IRAUNKORREKO BESTE ZUHAITZIK?
- MARRAZTUKO ZENUKE?
- HOSTO ERORKORREKO ZUHAITZ BATEN IZENA AL DAKIZU (NEGUAN HOSTO GUZTIAK GALTZEN DITUEN HORIETAKOA)?
- MARRAZTUKO ZENUKE?

### ➤ KURRILOAK EZAGUTZEN DITUZU?

UDAZKENEAN HEGOALDERANTZ BIDAIATZEN IKUSTEN DITUGU, ETA NEGU AMAIERAN IPARRALDERANTZ. ENTZUN, EA HAIEN KANTUAK EZAGUN EGITEN ZAIZKIZUN:  
[HTTPS://BIT.LY/3BBMLKA](https://bit.ly/3BBMLKA)

KURRILO IZEN ONOMATOPEIKO BAT DA. BA AL DAKIZU ZER DIREN ONOMATOPEIAK? ADIERAZTEN DUTEN HORREN SOINUA IMITATZEN DUTEN HITZAK DIRA, ESATERAKO KURRILOA, KUKUA...

- IDATZI BESTE HITZ ONOMATOPEIKOREN BAT:

- KURRILOEN SOINUA IMITATUKO ZENUKE?

MIGRAZIOETAN TALDEKA BIDAIATZEN DUTE KURRILOEK, ETA GEZI ZEIN V ITXURAKO MARRAZKIAK EGITEN DITUZTE ZERUAN. INOIZ HALAKORIK IKUSI AL DUZU?



KURRILO TALDE HORIEK OSO UGARIAK IZAN DAITEZKE.

- ZENBAT KURRILO DAUDE ESKUINEKO ARGAZKIAN HEGAN?

### 3. PAPERIK ONENA, ERABILTZEN EZ DENA

#### ➤ PAPER A ETXEAN

- ZURE FAMILIAREN LAGUNTZAREKIN, EGIZU ETXEAN DITUZUEN PAPER GUZTIEN ERREPASOA: KOMUNEKO PAPER A, IDAZTEKOA, MUKIAK KENTZEKOA, SUKALDEKO PAPER A, PAPER EZKO AHOZAPIAK...

IDATZI ETA MARRAZTU ETXEAN DITUZUEN PAPER-MOTA GUZTIAK:

#### ➤ PAPER A BIRZIKLATZEA:

- ETXEAN DITUZUEN PAPER ETAKO BATZUK ZIUR ASKI PAPER ARENDAKO EDUKIONTZI URDINERA BOTAKO DITUZUE, BIRZIKLATU ETA BERRIZ ERE PAPER A EGITEKO. BAINA BESTE BATZUK, PAPER ZIKINAK (KOMUNEKO PAPER A SALBU, HORI KOMUNERA BOTATZEN BAITUZUE), EZIN DIRA BIRZIKLATU ETA EDUKIONTZI BERDEAN AMAITZEN DUTE, ETA HORTIK ZABORTEGIRA DOAZ.

EGIN BI ZERRENDA ETXEAN DITUZUEN PAPER-MOTA EZBERDINEKIN. BATEAN EDUKIONTZI URDINERA BOTATZEN DITUZUENAK JARRI, ETA BESTEAN, EDUKIONTZI BERDERA DOAZENAK. BI EDUKIONTZIAK MARRAZ DITZAKEZU ETA ZERRENDAK BARRUAN IDATZI.

- ZENBAT PAPER-MOTA JARRI DITUZU ZERRENDA BAKOITZEAN? ZEIN ZERRENDA DA LUZEAGOA?

➤ **PAPERA MURRIZTEA:**

- ZURE FAMILIAREKIN BATERA BEGIRATU ETXEAN DITUZUEN PAPER-MOTEI BURUZKO ZERRENDA, ETA PENTSATU “ERABILI ETA BOTATZEKO” PAPER HORIETAKOREN BATEN ORDEZ GEHIAGO IRAUTEN DUEN BESTE PRODUKTUREN BAT ERABILTZEN AHAL DUZUEN. IDATZI ETA MARRAZTU

#### 4. MEZUA HEDATZEN LAGUNDUKO DIDAZU?

- KURRILOAK LAGUN DITUT, ZUK ERE LAGUNDU NAHI? ZURE IRUDIMENA ERABILI, IDATZI, MARRAZTU, EGIZU GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN HORI HONAKO MEZU HAU HEDATZEKO: “PAPERIK ONENA, ERABILTZEN EZ DENA”

ZURE LANEN BAT PARTEKATU NAHI BADUZU (MARRAZKIAK, SOINUAK, ARGAZKIAK...), HONA BIDALI AHAL DIZKIGUZU: [EDUCACIONAMBIENTAL@PAMPLONA.ES](mailto:EDUCACIONAMBIENTAL@PAMPLONA.ES). ETA NAHI BADUZU GURE SARE SOZIALETAN PARTEKATUKO DUGU.

**ESKERRIK ASKO MEZUA HEDATZEN LAGUNTZEAGATIK!**